Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

670

2/2010 EBAZPENA, urtarrilaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako hitzarmen bat argitaratzea xedatzen duena (beherago dago zehaztuta hitzarmena).

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2009ko urriaren 20an egindako bilkuran, lankidetza-hitzarmen bat izenpetzea onartu zuen. Alderdiak: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta bere sozietate publikoak; bestetik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Helburua: informazioa baliabide elektronikoen bitartez trukatzea. Bada, hitzarmenari beharrezko zabalkundea emateko xedez, honakoa

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren nahiz bere sozietate publikoen eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean izenpetutako lankidetza-hitzarmena, hain zuzen ere, informazioa baliabide elektronikoen bitartez trukatzea helburu duen hitzarmena. Erabakia ebazpen honen eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 14a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko
Harremanetarako zuzendaria,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

670

RESOLUCIÓN 2/2010, de 14 de enero, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Convenio celebrado por el Gobierno Vasco, que se indica.

Habiéndose autorizado por el Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 20 de octubre de 2009, la suscripción de un convenio de colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Sociedades Públicas y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el intercambio de información por medios electrónicos, y a los efectos de darle la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto de convenio de colaboración suscrito entre la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Sociedades Públicas y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el intercambio de información por medios electrónicos, que figura como anexo a la presente.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de enero de 2010.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 14KO 2/2010 EBAZPENAREN ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA BERE SOZIETATE PUBLIKOEN ETA ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, INFORMAZIOA BALIABIDE ELEKTRONIKOEN BITARTEZ TRUKATZEKO

Vitoria-Gasteizen, 2009ko abenduaren 1ean.

BILDU DIRENAK

Idoia Mendia Cueva andrea, Justizia eta Herri Administrazioko sailburua. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren (hemendik aurrera EAEko Administrazioa) eta bere sozietate publikoen ordezkaritzan jardun du.

José Luis Cimiano Ruiz jauna, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua. Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritzan jardun du.

José María Iruarrizaga Artáraz jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko diputatua. Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaritzan jardun du.

Pello González Argomaniz jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko diputatua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaritzan jardun du.

Alderdiek hitzarmena sinatzeko behar den gaitasun juridikoa onartu diote elkarri eta hori dela bide hauxe

AZALDU DUTE:

I.– Bai EAEko Administrazioak, bai foru aldundiek administrazio kudeaketa modernizatu, arrazionalizatu eta erraztu nahi dute, zerbitzu publikoak ahalik eraginkorrenak eta hoberenak izan daitezen. Helburu horiek lortzeko ezinbestekoa da herri administrazioen arteko lankidetza areagotzea. Hain zuzen ere, administrazioek informazioa trukatzeko sistemak sortu behar dira, izapideak egiteko herritarrei ziurtagiriak eskatu beharra saihesteko aukera emango duten sistemak.

II.– Herritarrek zerbitzu publikoak baliabide elektronikoen bitartez erabiltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak ezarri du herritarrek eskubidea dutela herri administrazioek badituzten datuak eta agiriak ez emateko.

ANEXO A LA RESOLUCIÓN 2/2010, DE 14 DE ENERO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI Y SUS SOCIEDADES PÚBLICAS Y LAS DIPUTACIONES FORALES DE ÁLAVA, BIZKAIA Y GIPUZKOA PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN POR MEDIOS ELECTRÓNICOS

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2009.

REUNIDOS

De una parte, doña Idoia Mendia Cueva, en su calidad de Consejera de Justicia y Administración Pública, y en representación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus sociedades públicas (en adelante Administración de la CAE).

De otra parte, don José Luis Cimiano Ruiz, Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, en representación de dicha Diputación Foral.

De otra parte, don José María Iruarrizaga Artáraz, Diputado de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, en representación de dicha Diputación Foral.

De otra parte, don Pello González Argomaniz, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en representación de dicha Diputación Foral.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente Convenio y en su virtud

EXPONEN

I.– Que tanto la Administración de la CAE como las Diputaciones Forales tienen entre sus objetivos prioritarios impulsar la modernización, la racionalización y la simplificación en la tramitación administrativa, con la finalidad de ofrecer unos servicios públicos eficientes y de calidad. Para conseguir estos objetivos es indispensable intensificar la cooperación entre Administraciones Públicas, y, en concreto, construir sistemas de intercambio de información entre éstas que eviten la necesidad de solicitar a la ciudadanía certificaciones de datos para realizar trámites ante las Administraciones.

II.– Que la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los datos y documentos que obren en poder de las Administraciones Públicas.

III.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautu duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuan ezarri da herri administrazioen arteko datu-trukea berariazko lankidetza hitzarmenean ezarritakoari lotuta egingo dela hitzarmenean ondokoak zehaztu behar dira, besteak beste:

a) Emango diren datuen zehaztapena.

b) Zertarako erabiliko diren datuak.

c) Eskaera egin duenaren eskumena.

d) Behar den kasuetan, datu-ematearen aldizkotasuna.

e) Nola egin behar den transmisioa (datuak ematen dituen administrazioaren sistema eta eskuratzen dituenaren sistema bateragarriak izatea bermatu behar da) eta zein neurri aplikatuko den datuen egiazkotasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzeko.

f) Behar izanez gero, datuen titularrek lagapenerako baimena eman dutelako ziurtagiria.

IV.– Foru aldundiek araupetuta dute jada nola eman behar dieten herri administrazioei beren egitekoak betetzeko behar duten zergen arloko informazioa:

– 6/2005 Foru Arau Orokorra, otsailaren 28koa, Arabako zergei buruzkoa.

– 112/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketako Araudia onetsi duena.

– 59/2002 Foru Dekretua, azaroaren 5ekoa, haien egitekoak bete ditzaten herri administrazioei zerga informazioa ematea eta Zergen Foru Arau Orokorreko 113.1 artikuluan zehaztutako kasuak arautzen dituena.

V.– Sinatzaileek datu jakin batzuk behar izaten dituzte beren egitekoak burutzeko eta ezarrita dituzten eskumenak erabiltzeko. Beraz, herri administrazioen arteko harremanetan elkarri laguntzea nagusi izan behar dela kontuan hartuta eta beraien jardunean eraginkortasunaren printzipioa eta herritarrei zerbitzu eman beharraren printzipioa aplikatuta, alderdiek uste dute beren arteko datu trukea arautu behar dutela. Trukean baliabide informatikoak edo telematikoan erabiliko dira, eta herri administrazioek dauzkaten datuen inguruan herritarrei dagozkien bermeak eta eskubideak errespetatuko dira.

VI.– Datuak elkarri emateko erabiliko den sistemari esker alde batera utzi ahal izango dira paperezko

III.– Que el Decreto 232/2007, de 18 de diciembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos en los procedimientos administrativos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece que la transmisión de datos entre Administraciones Públicas se llevará a cabo según lo dispuesto en el correspondiente Convenio de colaboración que, entre otros extremos, deberá contener:

a) los datos objeto de la transmisión,

b) la finalidad para la que se efectúa,

c) la competencia del destinatario que justifica el dato que se recaba,

d) la periodicidad, en su caso, de la transmisión,

e) la forma en que ha de materializarse la transmisión, debiendo garantizar la compatibilidad técnica entre los sistemas utilizados por la Administración requirente y la cedente de los datos, así como las medidas empleadas para preservar la autenticidad, integridad y confidencialidad de la transmisión, y,

f) en su caso, la constancia del previo consentimiento de las personas titulares de los datos a su cesión.

IV.– Que las Diputaciones Forales han regulado el suministro de información tributaria a las Administraciones Públicas para el desarrollo de sus funciones:

– Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

– Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 112/2009, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de gestión de los tributos del Territorio Histórico de Bizkaia.

– Decreto Foral 59/2002, de 5 de noviembre por el que se regula el suministro de información tributaria por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa a las Administraciones Públicas para el desarrollo de sus funciones, así como los supuestos contemplados en la Norma Foral General Tributaria.

V.– Que las partes firmantes requieren la cesión de determinados datos para el desarrollo de las funciones y el ejercicio de las competencias que tienen encomendadas, por lo que en el marco de la colaboración mutua que debe presidir las relaciones entre Administraciones Públicas, y en aplicación de los principios de eficiencia y servicio a la ciudadanía que han de regir su actuación, las partes consideran necesario regular las condiciones de dicho intercambio, que se producirá utilizando medios informáticos o telemáticos, y con salvaguarda de las garantías y los derechos que asisten a la ciudadanía, en relación a sus datos personales en poder de las Administraciones Públicas.

VI.– Que el Sistema de Interoperabilidad que se va a utilizar permite sustituir los certificados u otros

ziurtagiriak eta bestelako egiaztagiriak: aurrerantzean datuak baliabide telematikoen bidez bidaliko dira, eta behar bezala bermatuko dira trukatzen den informazioaren egiazkotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, baliagarritasuna eta artapena.

VII.– Sinatzaileak itundu dute 1998ko abenduaren 22an Eusko Jaurlaritzak foru aldundiekin datuen trukeaz sinatutako hitzarmenak (EHAA, 1999ko urtarrilaren 15ekoa) hitzarmen honetan ezarritako sistemaren bidez haietan ezarritako informazio-hornidura bermatzen denean azkentzea. Hori gertatu arte aurreko hitzarmenek jarraituko dute indarrean.

Horregatik guztiagatik, alderdiek lankidetza hitzarmen hau sinatu dute.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hauxe da hitzarmen honen xedea: foru aldundiek eta EAEko Administrazioak informazioa trukatzeko prozedura finkatzea. Prozedura horri esker herri administrazio horiek beren egitekoetan eskuratzen duten informazioa eman ahal izango diote elkarri ezarrita dituzten eginkizunak burutu ahal izateko.

Nolanahi ere, informazioa indarreko arau-esparrua errespetatuta emango da beti, eta informazioan ageri diren pertsonen eskubideak urratu gabe.

Bigarrena.– Lankidetzaren eremua.

EAEko Administrazioak eta foru aldundiek informazioa laga edo jasoko dute, kasuan kasukoa. Hitzarmenaren eranskinetan azaltzen diren gaien inguruko datuak eskualdatuko dira; hona:

– II. eranskina. Herritarrak zerga betebeharretan egunean daudenez argitzen duen informazioa, dirulaguntzak emateko eta administrazio kontratuak egiteko behar dena. Foru aldundiek EAEko Administrazioari emango diote.

– III. eranskina. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroko datuak. Foru aldundiei emango zaizkie.

Horrez gainera alderdiek eranskinak gehitu ahal izango dizkiote hitzarmenari beste arlo batzuetako informazioa trukatzeko.

Hirugarrena.– Elkarrekikotasuna.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek informazioa laga zein hartu egin dezakete. Hori berariaz azalduko da eranskinetako klausuletan.

documentos acreditativos en papel por transmisiones de datos telemáticas, y asegura las condiciones de autenticidad, integridad, confidencialidad, disponibilidad y conservación de la información intercambiada.

VII.– Que las partes firmantes acuerdan resolver los Convenios en materia de cesión de datos suscritos entre el Gobierno Vasco y cada una de las Diputaciones Forales, el 22 de diciembre de 1998 (BOPV de 15 de enero de 1999), cuando se garantice el suministro de información que tiene cobertura en los mismos, mediante el sistema previsto en este Convenio. Hasta que esto no se produzca continuarán en vigor los Convenios anteriores.

Por todo ello, las partes firmantes suscriben este Convenio de colaboración con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.– Objeto.

El presente Convenio tiene por objeto establecer los términos y condiciones generales para el intercambio de información entre cada una de las Diputaciones Forales y la Administración de la CAE, a fin de facilitar el acceso a la información obtenida en el ejercicio de sus funciones en cuanto Administraciones Públicas, y que requieren para el desempeño de las funciones que tienen encomendadas.

En todo caso, el suministro de información entre las partes se producirá siempre con estricto respeto al marco normativo vigente, preservando los derechos de las personas a que se refiere la información.

Segunda.– Ámbito de aplicación.

La Administración de la CAE y cada una de las Diputaciones Forales colaborarán como cedente o cesionario, en función de la información de que se trate, en las materias relacionadas en los anexos al presente Convenio que, a continuación, se especifican:

– Anexo II. Transmisión de la información de estar al corriente en las obligaciones tributarias por parte de las Diputaciones Forales a la Administración de la CAE, para la gestión y concesión de subvenciones y para la contratación administrativa.

– Anexo III. Transmisión de datos del Registro de Parejas de Hecho de la Comunidad Autónoma de Euskadi a las Diputaciones Forales.

De igual forma las partes podrán intercambiar información referida a otras materias mediante la suscripción, por las partes firmantes de este Convenio, de nuevos anexos.

Tercera.– Reciprocidad.

Las partes sujetas al presente Convenio pueden actuar tanto como cedentes de información como de cesionarias de ésta. Esta circunstancia se plasmará expresamente en el clausulado de cada uno de los anexos.

Laugarrena.– Baldintza teknikoak eta funtzionalak.

Informazioa hitzarmenaren I. eranskinean ezarritako baldintza tekniko eta funtzionalei lotuta emango da.

– I. eranskina. Informazioa emateko baldintza tekniko eta funtzionalak.

Bosgarrena.– Jarraipen Batzorde Teknikoa.

Jarraipen Batzorde Teknikoa sortuko da hitzarmenean eta eranskinetan itundutakoa kudeatzeko, jarraipena egiteko eta betetzen denez kontrolatzeko. Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek bina kide izendatuko dituzte. Batzordea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluan ezarritako arauei lotuko zaie bere jardunean.

Jarraipen Batzorde Teknikoak ohiko bilkura bat izango du urtean. Horrez gainera aparteko bilkura egingo du alderdi batek eskatzen duen bakoitzean. Batzordeak etengabe eguneratuko ditu hitzarmenaren eranskinetan aipatzen diren arduradunak.

Jarraipen Batzorde Teknikoak hitzarmenaren interpretazioaren eta burutzapenaren inguruan sortzen diren auziak ebatziko ditu, eta bidezkotzat jotzen diren hobekuntzak formalizatzea proposatuko du.

Gainera, Jarraipen Batzorde Teknikoak hitzarmenaren funtsa ukitzen ez duten aldaketa teknikoak ezar ditzake.

Seigarrena.– Araubide ekonomikoa.

Lankidetza hitzarmen honek ez du sortzen sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik. Hala ere, alderdiek inbertsioak egin beharko dituzte hitzarmen hau sinatuta beren gain hartu dituzten betebeharrak betetzeko.

Zazpigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik aurrera sortuko ditu ondoreak, eta hiru urtean egongo da indarrean. Indarraldia amaitutakoan hitzarmena urtebeterako luzatuko da berez, eta hala gertatuko da urtero, baldin eta alderdi batek mugaeguna baino hiru hilabete aurrerago gutxienez azkentzea nahi duela adierazten ez badu.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren berrikuspena.

Alderdiek noiznahi proposatu ahal izango dute hitzarmena berrikustea bidezkotzat jotzen diren aldaketak egiteko. Hitzarmenaren klausulak berrikusten

Cuarta.– Condiciones técnicas y funcionales.

El suministro de información se realizará según las condiciones técnicas y funcionales detalladas en el anexo I a este Convenio.

– Anexo I. Condiciones Técnicas y Funcionales de la Transmisión de Información.

Quinta.– Comisión Técnica de Seguimiento.

Para la gestión, seguimiento y control de lo acordado en el presente Convenio y en sus anexos, se constituirá una Comisión Técnica de Seguimiento que estará compuesta por dos miembros designados por el Gobierno Vasco, y dos miembros designados por cada Diputación Foral, ajustándose el funcionamiento de la citada Comisión a las normas contenidas en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La Comisión Técnica de Seguimiento se reunirá, de manera ordinaria, una vez al año y, de forma extraordinaria, a petición de cualquiera de sus miembros. La Comisión mantendrá permanentemente actualizados los responsables que figuran en los anexos del Convenio.

Corresponde a la Comisión Técnica de Seguimiento resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que se deriven del presente Convenio, así como proponer la formalización de las mejoras del mismo que considere oportunas.

Las modificaciones de tipo técnico que no constituyan modificación sustancial del convenio podrán ser acordadas por la propia Comisión Técnica de Seguimiento.

Sexta.– Régimen económico.

Este Convenio de colaboración no comporta contraprestaciones económicas entre las partes firmantes, sin perjuicio de que cada una de ellas deba realizar las inversiones necesarias en sus instalaciones para cumplir con las obligaciones que ha adquirido mediante la firma del presente Convenio.

Séptima.– Vigencia del Convenio.

El presente Convenio producirá efectos a partir del día de su firma y tendrá una duración de tres años. El Convenio se prorrogará automáticamente por períodos anuales, salvo denuncia por alguna de las partes con una antelación mínima de tres meses antes de la fecha de vencimiento.

Octava.– Revisión del Convenio.

Cualquiera de las partes podrá proponer la revisión de este Convenio en cualquier momento para introducir las modificaciones que se estimen perti-

badira, aldaketak alderdiek sinatu beharreko eranskinetan jasoko dira.

Gainera, alderdiek datu gehiago trukatzeko eranskinak sartzea itundu ahal izango dute, baina horrek ez du berekin ekarriko hitzarmeneko klausulen berrikuspena.

Bederatzigarrena.– Araubide juridikoa.

Hitzarmen honi ez zaio aplikatuko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea, bertako 4.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Nolanahi ere, lege horren printzipioak aplikatuko dira sortzen diren zalantzak eta ezbaiak argitzeko.

Hamargarrena.– Gatazkak konpontzea.

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek konpromisoa hartu dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkar hartuta konpontzeko.

Hitzarmenaren garapenean eta burutzapenean alderdien arteko auziren bat sortzen bada eta bosgarren klausulan ezarritako Jarraipen Batzorde Teknikoak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

Hamaikagarrena.– Komunikazioa.

Alderdiek hitzarmenaren sinatzaile guztiak aipatuko dituzte haren berri emateko bakarka zein batera egiten dituzten egintza guztietan.

Hamabigarrena.– Araubide iragankorra.

Hitzarmen hau sinatzen denean sinatzaileen arteko informazio-trukerako indarrean dauden akordioek eta hitzarmenek indarrean jarraituko dute harik eta hitzarmen honetan ezarritako datu-transmisiorako sistema berria erabiltzen hasi arte, eta ezin izango dira ordeztu informazioaren hornidura haietan bezala bermatu ezean.

Aurrean ezarritako guztia frogatzeko, alderdiek hitzarmenaren lau ale sinatu dituzte ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

EAEko Administrazioaren eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru aldundien arteko lankidetza hitzarmena, informazioa baliabide elektronikoen bitartez trukatzeko

Erantsitako agiriak

I. eranskina. Informazioa emateko baldintza tekniko eta funtzionalak.

II. eranskina. Herritarrak zerga betebeharretan egunean daudenez argitzen duen informazioa, dirulaguntzak emateko eta administrazio kontratuak egi-

nentes. De producirse la revisión del clausulado del Convenio, los correspondientes cambios habrán de incorporarse al mismo mediante adenda que será suscrita por las partes.

Asimismo, mediante adenda, las partes podrán acordar la incorporación de anexos para la transmisión de nuevos datos, sin que esto suponga la revisión de las cláusulas del presente Convenio.

Novena.– Régimen Jurídico.

El presente Convenio está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, según lo previsto en el artículo 4.1.c) de la misma, sin perjuicio de que se apliquen los principios de esta Ley para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse.

Décima.– Resolución de conflictos.

Mediante la firma del presente Convenio, las partes se comprometen a resolver de mutuo acuerdo las incidencias que puedan surgir en su cumplimiento.

Las cuestiones litigiosas que surjan entre las partes durante el desarrollo y ejecución del presente Convenio, y no puedan ser resueltas por la Comisión Técnica prevista en la cláusula quinta, se someterán a la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, conforme a lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Undécima.– Comunicación.

Las partes se comprometen a citar al conjunto de los firmantes del Convenio en cualquier acto de comunicación que sobre la materia del mismo se realice unilateral o conjuntamente.

Duodécima.– Régimen transitorio.

Los acuerdos o convenios que regulan el suministro de información entre las partes firmantes, vigentes a la firma de este Convenio, se mantendrán en vigor, hasta que sea efectivo el nuevo sistema de transmisión previsto en este Convenio, y no podrán ser sustituidos salvo que se garantice el suministro de la información en las mismas condiciones previstas en aquéllos.

Y en prueba de cuanto antecede, las partes suscriben este Convenio en cuatro ejemplares y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

Convenio de colaboración entre la Administración de la CAE y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para el intercambio de información por medios electrónicos.

Documentos anexos:

Anexo I. Condiciones técnicas y funcionales de la transmisión de información.

Anexo II. Transmisión de información de estar al corriente en las obligaciones tributarias por parte de las Diputaciones Forales a la Administración de la

teko behar dena. Foru aldundiek EAEko Administrazioari emango diote.

III. eranskina. Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak datuak ematea foru aldundiei.

I. ERANSKINA

INFORMAZIOA EMATEKO BALDINTZA TEKNIKO ETA FUNTZIONALAK

1.– Sistema elkarreragilea.

Eranskin honetan azalduko den sistema elkarreragilea eranskin bakoitzean aipatzen diren datuak aztertzeko eta egiaztatzeko zerbitzua da.

Sistema honi esker bertan behera utzi ahal izango dira paperezko ziurtagiriak eta haien ordez sinatzaileek baliabide telematikoen bitartez bidali ahal izango diote informazio elkarri.

Hauexek dira sistema elkarreragilearen oinarriak:

– Erakundeek elkarri bidaliko dizkioten XML dokumentuak, sinadura elektronikoa edukiko dutenak.

– Erakundeen arteko komunikaziorako bide seguruak ezartzea SSL protokoloaren bitartez.

Sistema hau, beraren azpiegiturari esker, era askotako ingurune teknologikoetan erabil daiteke; horrez gainera behar bezala bermatuko ditu trukatzen den informazioaren egiazkotasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, baliagarritasuna eta artapena.

2.– Nola erabili sistema elkarreragilea.

Bi modutara erabil daiteke sistema elkarreragilea informazioa aztertzeko:

– Interneteko nabigatzaile baten bidez, HTTP/1.1 hipertestua transferitzeko protokoloaz edo bertsioa berriagoaz baliatuta. Interfaze hau erabiltzeko Interneteko konexioa eta sinadura elektronikoa eduki behar dira; enplegatu publikoek beren burua egiaztatu eta identifikatu beharko dute.

– Web zerbitzuko interfaze automatizatu baten bidez, The World Wide Web Consortium (W3C) komunitatearen WSDL 1.1 estandarraz edo bertsio berriagoaz baliatuta. Hasierako definizioa eta ondoko egunerapenak zerbitzu deskripziorako fitxategiaren bitartez (WSDL) helaraziko zaizkie sailei eta erakunde publikoei.

Sistema elkarreragileko zerbitzuak Euskal Administrazio Publikoaren sarearen bitartez (Euskalsarea) erabiliko dira.

3.– Betekizunak: egiazkotasuna, osotasuna eta ez ezestea.

CAE, para la gestión y concesión de subvenciones y para la contratación administrativa.

Anexo III. Transmisión de datos del Registro de Parejas de Hecho de la Comunidad Autónoma de Euskadi a las Diputaciones Forales.

ANEXO I

CONDICIONES TÉCNICAS Y FUNCIONALES DE LA TRANSMISIÓN DE INFORMACIÓN

1.– Sistema de interoperabilidad.

El sistema de interoperabilidad descrito en este anexo consiste en un servicio para la consulta y comprobación de los datos que se especifican en cada anexo.

Este sistema permite sustituir los certificados en papel por transmisiones telemáticas de datos entre las partes firmantes.

El sistema de interoperabilidad está basado en:

– Documentos XML intercambiados entre los organismos y firmados electrónicamente.

– Establecimiento de canales seguros entre los organismos mediante protocolo SSL.

La infraestructura aplicada en este sistema permite su implantación en entornos tecnológicos heterogéneos y asegura las condiciones de autenticidad, integridad, confidencialidad, disponibilidad y conservación de la información intercambiada.

2.– Acceso al sistema de interoperabilidad.

Existen dos formas de acceso al sistema de interoperabilidad para realizar las consultas:

– Una interfaz accesible a través de un navegador de Internet, conforme al Protocolo de transferencia de Hipertexto – HTTP/1.1 o superior, donde una persona empleada pública, debidamente acreditada e identificada, podrá realizar consultas con sólo disponer de un navegador con acceso a la red y firma electrónica.

– Una interfaz automatizada de Servicio Web, conforme al estándar WSDL 1.1 o superior del W3C The World Wide Web Consortium (W3C), cuya definición inicial y sucesivas actualizaciones serán puestas a disposición de los departamentos y organismos públicos, a través del fichero descriptivo del servicio (WSDL).

El acceso a los servicios de interoperabilidad se realizará a través de la red de la Administración Pública Vasca (Euskalsarea).

3.– Requisitos de Autenticidad, Integridad y no Repudio.

Sistema elkarreragilearen bidez kontsultak egiteko eta erantzunak jasotzeko sinadura elektronikoa beharko da.

Sinadura elektronikoak helburu hauek dauka: datuen osotasuna bermatzea, eragiketan parte hartzen dutenen nortasuna ezkutuan mantentzea eta kontsulta ez ezestea.

Datu-transmisioetan bidaltzen diren mezuak sinatu egin behar dira, eta horretarako «Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, S.A.» sozietateak emandako ziurtagiri elektronikoak erabili behar dira, hain zuzen ere UIT X.509 gomendioaren 3. bertsioa edo berriagoa betetzen dutenak.

Ezin erabili izango da iraungita edo ezeztatuta dagoen ziurtagiririk.

4.– Informazioa eskuratzeko betekizunak: segurtasuna eta konfidentzialtasuna.

Sistema elkarreragilearen bidez kontsultaren bat egiten denean eta informazioa jasotzen denean datu pertsonalak babesteko arautegia bete beharko da.

Sistema elkarreragilearen bidez eskatzen den informazioak helburu jakin bat eduki behar du; kontsulta egiten denean adierazik beharko da. Eskuratzen den informazioa adierazitako egiteko soilik erabili ahal izango da.

Administrazio bakoitzeko organo batek zehaztuko du haren esparruko zein pertsona eta zein aplikazio konekta daitezkeen sistema elkarreragilearekin, eta zein datu eskura ditzakeen ere bai.

5.– Sistema elkarreragilearen auditoretza.

Sistema elkarreragileaz baliatuta egiten diren transmisio guztiak erregistratuko dira; transmisio bakoitzaren datu hauek zehaztuko dira: transmisioari lotutako informazioa, eskatzailea nor izan den, data eta informazioaren helburua.

Erregistroaren helburua sistema elkarreragileek auditoretza-modulua edukitzea da, administrazio erakundeen arteko datu-transmisioak aztertu eta berreskuratu ahal izateko.

6.– Transmisio moduak.

6.1.– GET metodoa.

Atal honetan azalduko da nola transmitituko dioten informazioa elkarri herri administrazioek.

Erantzuteko denbora kontuan hartuta, eskatzen den informazioa bi modutara transmititu daiteke:

– Modu sinkronikoan: informazioa eskaera jaso eta berehala bidaliko da.

Todas las consultas que se realicen mediante el sistema de interoperabilidad, así como las correspondientes respuestas obtenidas resultado de las mismas, tendrán que ser firmadas electrónicamente.

Esta firma electrónica tiene por objeto garantizar, tanto la integridad de los datos intercambiados, como la identidad de las partes que intervienen, y el no repudio de la consulta.

Los mensajes intercambiados en las transmisiones de datos se firmarán utilizando certificados electrónicos reconocidos que cumplan la recomendación UIT X.509 versión 3 o superiores, emitidos por la sociedad «Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, S.A.».

No podrán utilizarse certificados electrónicos caducados o revocados.

4.– Requisitos de Seguridad y Confidencialidad en el acceso a la información.

La consulta y el acceso a la información proporcionada por el sistema de interoperabilidad cumplirán con la normativa de protección de datos de carácter personal.

La consulta y el acceso a la información proporcionada por el sistema de interoperabilidad deberán realizarse con una finalidad concreta, que quedará recogida en el momento de la consulta. La información obtenida sólo podrá utilizarse para dicha finalidad.

En cada Administración existirá un órgano que determinará las personas usuarias y aplicaciones de su respectiva Administración que tendrán acceso al sistema de interoperabilidad y a los datos que se puedan obtener.

5.– Auditoria del sistema de interoperabilidad.

Todas las transmisiones que se realicen mediante el sistema de Interoperabilidad deberán quedar registradas, así como la información de contexto asociada, la identidad de la persona solicitante, la fecha y la finalidad de la consulta.

Este registro de la información tiene por objeto proveer a los sistemas de Interoperabilidad de un módulo de auditoría que garantice la disponibilidad y recuperación de las transmisiones de datos realizadas entre los organismos administrativos.

6.– Modos de transmisión.

6.1.– Transmisión por «Método GET».

Este apartado describe el modo de la transmisión de datos entre las distintas Administraciones Públicas, donde un organismo solicita información a otro.

En función del tiempo de respuesta, existen dos formas de transmitir la información solicitada:

– Sincrónica: la transmisión de la información solicitada es inmediata.

– Modu asinkronikoan: informazioa ez da bidaliko berehala, eskaera aztertu behar baita. Eskaera jasotzen duenaren sistemak erantzuna ematen zenbat denbora beharko duen adieraziko dio eskatzaileari.

Informazio-eskaera bi modutakoa izan daiteke:

– Baterakoa: erakunde batek informazioa dena batera bidaltzeko eskatzen badu, normalean berehala bidaliko da. Hala ere, berehala erantzuterik ez badago, eskaera jaso duenak EE (Erantzunik ez linean) kodea daukan mezua bidaliko du eskaera aztertzeko eta ebazteko denbora behar duela azaltzeko. Ondorioz eskatzaileak berriro bidali beharko du eskaera, oraingoan modu asinkronikoan.

– Loteka: informazioa loteka bidaltzeko eskatuz gero, modu asinkronikoan bidaliko da, dena berehala bidaltzerik ez dagoela eta.

– Datuen fluxua GET metodoaren bidezko transmisioan.


– Asincrónica: la transmisión no es inmediata, la información requiere un estudio previo, cuya duración estimada en días es devuelta por el sistema del cedente de la información.


La solicitud de información puede ser:

– Individual: cuando un organismo solicita información individualizada, inicialmente la transmisión se realizará de forma sincrónica. En caso que esta solicitud no se pudiera resolver de forma inmediata, el cedente enviará la respuesta con un código (NR - No hay Respuesta online) indicando que necesita un tiempo para estudiarla y resolverla. Esto implicará que automáticamente el organismo cesionario realice de nuevo la petición de forma asincrónica.

– Por lotes: cuando la información se solicita por lotes, la transmisión siempre se realizará de forma asincrónica ya que se presume que no se puede emitir toda la información, de forma inmediata.

Flujo de la transmisión de datos por «Método GET»





Aplikazioek baterako informazio-eskaera (eskaera bat) edo lotekakoa bidal dezakete (hainbat eskaera).

– Baterakoa bada, modu sinkronikoan erantzuteko eskatuko zaio beste aplikazioari.

– Informazioa loteka eskatzen bada, modu asinkronikoan erantzuteko eskatuko zaio beste aplikazioari.

Eskaera sinkronikoa

Erakunde batek eskaera sinkronikoa jasotzen badu, bere BackOffice-ra joko du linean erantzunaren datuak eskuratzeko.

Erantzun hauek eman daitezke:

– Erantzunaren berariazko datuak.

– Erantzunik ez linean (EE). Denbora behar du zer erantzun erabakitzeko.

– Erantzuna bidali eskatzaileari.

Erantzuna jasoz gero, eskatzaileak hauxe egin behar du:

– Erantzuna EE bada, eskaera asinkronikoa egin behar du (3. urratsa).

– Erantzuna badago, eskaera egin duen aplikaziora bidaliko du (5. urratsa).

Eskaera asinkronikoa.

Erakunde batek eskaera asinkronikoa jasotzen badu, bere datu-basera joko du eskatutako informazioa

Las aplicaciones podrán enviar una solicitud de información con 1 o N solicitudes (lote).

– Si la petición es individual, se invocará al servicio del cedente de forma sincrónica.

– Si la petición es un lote, se invocará al servicio del cedente de forma asincrónica.

Petición Sincrónica

Cuando el cedente recibe la petición sincrónica, accederá a su BackOffice de forma online para obtener los datos de la respuesta solicitada.

Las respuestas pueden ser:

– Datos específicos de respuesta.

– No hay respuesta online (NR). El cedente necesita tiempo para estudiar la respuesta de esta solicitud.

– El cedente devolverá la respuesta al cesionario.

Una vez recibida la respuesta, el cesionario comprobará:

– Si el valor es NR, invocará de nuevo al servicio del cedente de forma asincrónica (Paso 3).

– Si hay respuesta se la devolverá a la aplicación que ha realizado la solicitud (Paso 5).

Petición Asincrónica.

Cuando el cedente recibe la solicitud asincrónica, accederá a su base de datos para obtener el tiempo

emateko zenbat denbora beharko duen kalkulatzeko (DEN - egunak). Eskaera jaso duelako berrespenmezua bidaliko dio eskatzaileari eta erantzuteko zenbat denbora (DEN - egunak) beharko duen adierazi-ko dio.

Eskatzaileak DEN balioa bidaliko du informazioa eskatu duen aplikaziora (5. urratsa).

Erantzuteko kalkulatutako denbora pasatutakoan eskatzailearen aplikazioek berriz ere erantzuna eskatu ahal izango diote beste erakundearen zerbitzuari.

Informazio eskaera jasotakoan bere BackOffice-ra joko du lotekako erantzunaren datuak biltzeko. Lote bakoitzean, erantzun hauek eman daitezke:

– Erantzunaren berariazko datuak.

– Erantzunik ez (EE). Ezin ebatzi izan du eskaera aurreko prozesuan adierazitako denboran. Hala gertatuz gero, eskatzaileak hautatu behar du informazioa berriro eskatzea edo ez.

– Azken erantzuna bidali eskatzaileari.

– Erantzuna eskaera egin duen aplikaziora bidaliko du.

6.2.– PUT metodoa.

Metodo honen bitartez informazioa gertatu ahala bidal daiteke, hau da, datuak jasotzen dituenak ez dauka zertan egin eskaera behin eta berriro. Datuak lagatzen dituenak berehala egingo du transmisioa eta hartzen dituenak informazioa bilduko du bere sistemetan erabiltzeko eta datuak jaso dituelako berrespen-mezua bidaliko dio lagatzaileari.

Datuen fluxua PUT metodoaren bidezko transmisioan.

estimado de respuesta (en días) asociado al tipo de información solicitada (TER). El cedente devolverá al cesionario una confirmación de que ha recibido la solicitud así como el n.º de días para el TER.

El cesionario devolverá el valor del TER a la aplicación que ha solicitado la información (Paso 5).

Una vez transcurrido el tiempo estimado de respuesta, las aplicaciones del cesionario podrán invocar de nuevo al servicio del cedente para solicitar la respuesta final.

Cuando el cedente recibe la solicitud de información, accederá a su BackOffice para obtener los datos de la respuesta para todo el lote. Las posibles respuestas por cada solicitud dentro del lote serán:

– Datos específicos de la respuesta.

– No resuelta (NR). El cedente no ha podido resolver esta solicitud en el tiempo estimado de respuesta. En este supuesto, será decisión del cesionario solicitar de nuevo o no la información.


– El cedente devolverá la respuesta final al cesionario.


– El cesionario devolverá la respuesta a la aplicación que envió la solicitud inicial.

6.2.– Transmisión por «Método PUT».

Este método permite al cedente transmitir información cada vez que ésta se produzca, sin necesidad de que exista una solicitud previa del cesionario. El cedente iniciará una transmisión de forma sincrónica al cesionario que recogerá dicha información para tratarla en sus sistemas, y devolverá una confirmación de recepción de los datos al cedente.

Flujo de la transmisión de datos por «Método PUT»





